



***Internetek haur eta gazteei eskaintzen dizkien aukerak eta arriskuak  
EUKids Online in Safer Internet Plus Programme (2006-2009) \****

[www.eukidsonline.net](http://www.eukidsonline.net)  
[www.ehu.es/eukidsonline](http://www.ehu.es/eukidsonline)

***Carmelo Garitaonandia***  
**EHU**  
**e-mail: [carmelo.garitaonandia@ehu.es](mailto:carmelo.garitaonandia@ehu.es)**

---

\* “Safer Internet Plus Programme” programaren barruan “Eukids On line” (<http://www.eukidsonline.net>) ikerketa-egitasmoa garatzen ari dira. 18 unibertsitatek parte hartzen dute egitasmo horretan, London School of Economics-eko Sonia Livingstone-en zuzendaritzapean. Espainian, Maialen Garmendia eta Carmelo Garitaonandia dira egitasmoaren arduradunak, eta EHUK ikerketak egiteko ematen dituen laguntzekin osatzen da finantzazioa. 2006 eta 2007rako UPV05/63 egitasmoaren barruan ematen da diru-laguntza hori.

## Sarrera

Azken hamarkadetan, unibertsitateetako ikerketetan eta, askotan, herri-administrazioak (Espainiako Gazteriari buruzko Txostena, adibidez) nahiz erakunde edo fundazio pribatuek finantzaturako ikerketetan ere (Pew Internet and American Life Project, Kaiser Family Foundation, France Telecom-Auna, Protégeles, etab.) hedabideek haur eta gazteengan duten eragina aztertu izan da. Telebista-kontsumoa teleikusleen parte-hartze maila txikiarekin lotu izan da, komunikazio-modu asimetrikoa dela esanez, eta hartzaileek eragiteko ia batere aukerarik ez dutela azpimarratuz. Hala ere, hedabide berrietan parte-hartzea handiagoa dela ematen du, eta parte-hartze hori aktiboagoa edo biziagoa izateaz gain, elkarreragin handiagoa dagoela, ordenagailuari edo interneti eta telebista digitalari esker. Hipotesi horri jarraiki, galdera berriak sortzen zaizkigu parte hartzeko molde ugarien inguruan, haur eta gazteek bitarteko horiek erabiltzeko moduaren inguruan eta dituzten arriskuen inguruan.

Ikerketa askotan aztertu izan da hedabideek sozializazio-eragile bezala duten betekizuna, bai beste aginte- eta sozializazio-eragile batzuekin batera (gurasoak, eskola, lagunak), bai haiekin gatazkan. Meyrowitzek dioenez (1984), unibertso elektronikoa sozializatuz *haur helduak* sortzen dira, hedabideen bidez beren adinagatik debekatuta dituzten eduki batzuk iristen zaizkielako eta horrek lañotasun edo xalotasuna behar baino lehen galtzea eragiten dielako. Liebesek (1991), bestalde, erakusten digu sozializazio-prozesuan telebistako irudiek balio handiagoa izaten dutela, batzuetan, gurasoek irakatsitako balioek baino. Hala ere, eskoletan ordenagailuak, interneterako konexioa, telebistak eta bestelako ekipoak jarriaz, harreman edo lotura orekatuagoa lortu liteke, betiko agintarien eta haurren etxeko jardueren artean.

Hedabideek haurren obesitatean duten eragina ere aztertu izan da, hiru alderditan oinarrituz, batik bat: haurrek telebista pasiboki kontsumitzen ematen duten denborak beste zerbaitean aritzea galarazten diela, hedabideen erabilerak maila metabolikoak jaitsarazten dituela eta janari kalorikoen publizitatea, azkenik. Ed Richards OFCOMeko (Britainia Handiko Hedabideak Erregulatzeko Erakundea) zuzendariak, adibidez, gantz, gatz eta azukre asko duten elikagaien publizitatean mugak jarri beharra dagoela esan du. Muga horiek haurrei zuzendutako iragarkietan jarri behar direla dio, 16 urtetik beherako programetan, eta *Simpsons*, *Friends* eta *Hollyoaks*-en tankerako saioretan (*The Guardian*, 2006-11-18). Nolanahi ere, zenbait ikerlanek auzitan jartzen dute hedabide jakin batzuk kontsumitzearen eta haurren obesitatearen arteko lotura hori. Vandewater-ek, Mi-Suk-ek eta Caplovitz-ek (2004), adibidez, bideojokoen batez besteko erabileraren eta obesitatearen arteko lotura nabarmenaz hitz egiten dute, nahiz eta gero erabilerari handi edo txikiaren eta obesitatearen artean lotura aipagarriarik egon ez.

Masa-hedabideek adin txikikoaren artean eragindako ondorioak ikerlari askoren aztergai dira. Edukien bortizkeriari dagokionez, hainbat teoria daude: imitazioaren teoria (irudi bortitz ugari ikusteak imitazioz bortizkeriara bultzatzen gaituela dioena) eta purga psikologikoaren teoria (ikusitako bortizkeriak sublimatu egiten du ikuslearen bortizkeria, eta gero bortizkeria hori ez gauzatzea eragiten du horrek), esate baterako. Eduki bortitzei buruzko teoria ugari bat datoz ideia honetan: “gatazkak konpontzeko bitarteko

eraginkorra bezala” indarra erabiltzeko joera duten gaztetxoengan bakarrik dutela eragin txarra eduki bortitzek, epe motzean. Bestalde, albistegi, erreportaje edota dokumentaletako bortizkeria erreala bera ere fikziozko bortizkeria baino areago gaitzesten hasiak dira batzuk. V-txipa dugu kezka horren adierazgarri bat. AEBetako Kongresuak Telekomunikazioen Lehiari eta Desarautzeari buruzko Legea onartu zuen 1996an, eta lege horri jarraiki, hurrek ikusteko moduan dauden programa bortitz, pornografiko edo zikinak kontrolatzeko, telebistetan V-txip hori jartzea erabaki zuten. 2000tik aurrera nahitaezkoa da txip hori, eta Kanadan ere gauza bera gertatzen da.

Europar, telebistaren eta adin txikikoen arteko harremanen gaineko sentsibilitate sozial eta politikoa handia da, eta zenbait erakunde —*British Standards Commission* eta *Conseil Supérieur de l’Audiovisuel*, adibidez— buru-belarri ari dira esparru horretan. Espainiako Parlamentuak, bestalde, Europako Kontseiluaren “Mugarik gabeko Telebista” izeneko arretaria onartu zuen 1989an, eta ondorengo aldaketa 1997an, eta arretaria eta aldaketa Espainiako legeetan sartu zituen 1994an eta 1999an, hurrenez hurren. Arretariaren artikuluetan adin txikikoak babesteko araudi bat eta ikusle txikiei zuzendutako programaziorik buruzko hainbat arau jasotzen dira, herri bakoitzeko erakundeek herri horretako programen edukia hurren garapen mental, fisiko nahiz morala kaltetzen ez duela ziurtatze aldera. Neurriok eragin txikia izan dutela ikusita, Espainiako gobernuak Telebistako Edukiak Hurrei begira Autoarautzeari buruzko Kodea sinatu zuen 2004ko abenduaren 9an, estatu-mailako kate hauekin: Antena 3, Telecinco, Sogecable eta TVE. Geroago, FORTA osatzen duten autonomia-erkidegoetako telebistek eta herri-mailako telebista-elkarte garrantzitsuenek ere bat egin zuten kode horrekin. Kodearen arabera, debekatuta dago adin txikikoentzat egokiak ez diren edukia ematea 06:00etatik 22:00etara, eta hurrek bereziki babesteko bi ordu-tarte finkatu ziren, halaber: 08:00-09:00 eta 17:00-20:00).

Espainian, 2000. urteaz geroztik, garrantzi handiko sei landa-ikerketak egin dira hurren nahiz jende arruntaren interneteko erabileraren inguruan. Ikerketak horien egileak hauek izan dira: Fundación Protégeles (2002) (bi ikerketa), Josep Valor eta Sandra Sieber (2003), CEACCU (2005), REDES (2006) eta Angel Gordo eta I. Macías (2006). Sei ikerlan horietatik bostetan metodologia kuantitatiboa erabili dute eta inkestetan oinarritu dira, funtsean. Gainera, ikerketa gehien-gehienek erakunde publikoen finantzazioa izan dute (ministerioena edo fundazioena). Horrek erakusten digu, beraz, interneten ibiltzeko eta internet erabiltzeko ohiturak interes publikoko arazoa direla gaur egun. Dena den, harrigarria bada ere, bi ikerketetan bakarrik (Fundación Protégeles-ek egindako bietan) aztertzen dira hurrek internet erabiltzeko segurtasunaren inguruko alderdiak: egokiak ez diren edukietarako sarbidea, solasguneetako arriskuak, adin txikikoak mehatxuen biktima izatea, delituzko jokabideak, etab.

### **Etxeko ekipamendua eta interneten kontsumoa haur eta gazteen artean**

Espainiako etxeetan dauden telebista, bideo, DVD-irakurgailu, kamera digital eta bideojoko-kontsolak eta gazteek dituzten bestelako ekipamenduak (sakelako telefonoa, adibidez) Europar Batasuneko gainerako herrietan dutenen antzeko mailan daude; kopurua handia da, beraz. Dena den, ordenagailuei eta interneteko konexioei dagokienez, espainiarrak EBko mailaren azpitik daude. Espainiako edozein adinetako haur eta gazte

gehien-gehienek koloreko telebistaren bat dute etxean, eta etxean %64,2tan bi edo gehiago dituzte. Etxeen %61,5ean DVD-irakurgailu bat dute, eta bideo-irakurgailua %62,5ean. Etxeen erdian ordenagailua dute, eta herenean baino gehixeagoan interneteko konexioa (EGM, 2006; <http://www.aimc.es>). Maila teknologiko horren ondorioz, haur eta gazte askok beren gelan bertan dituzte ekipo horiek, interneteko konexioa bera ere bai askotan, eta horren ondorioz, gurasoek garai batean baino askoz kontrol gutxiago dute zenbait alorretan: telebista ikusteko denboran, ikusten duten horretan, bideojokoetan, ordenagailuko jokoetan, interneten ibiltzeko denboran eta moduan. Gazteek beren gelan kontsumitzeko joera horri *bedroom culture* (logelako kultura) esaten zaio ingelesez. 2005ean *UK children go on-line* izeneko inkesta egin zen Erresuma Batuan, eta inkesta horren arabera, adin txikikoen bostenak baino gehiagok interneteko sarbidea dute beren logelan bertan. Kopuru hori handiagoa da mutilen artean nesken artean baino, eta 16-17 urte bitarteko gazteen artean bereziki. Fundación Aunak (France Telecom España, gaur egun) 2005ean argitaratutako txostenaren arabera, 18 urtetik beherako haur eta gazteen %60k internet erabiltzen dute, %40k sakelako telefonoa dute eta bi urte betez geroztik harremana izan dute kultura digitalarekin (kontsolak, ordenagailuak, sakelako telefonoak, kutxazainak, etab.). Gurasoen kontroletik kanpo gelditzen diren haur eta gazteen ekipamendu horiez gain, familiaren eta eskolako nahiz bestelako ekipamenduez egiten duten “ezkutuko” erabilera ere aintzat hartu beharra dago. Ez dakigu askorik erabilera horri buruz, baina Holandako haurrei buruz egindako ikerketa baten arabera, “%62k etxeko, eskolako, lagunen etxeko edo liburutegiko ordenagailuak *ezkutuan* erabiltzen zituztela zioten” (*De Telegraph*, 2005-05-09, 7. or).

Gazteen eta gainerako biztanleen kontsumoa alderatuta, bitartekoetan aurkitzen ditugu alde nagusiak. Gazteek internet gehiago kontsumitzen dute, maizago joaten dira zinemara eta aldizkari gehiago irakurtzen dute. Aitzitik, irratia gutxiago entzuten dute eta prentsa gutxiago irakurtzen dute (ikus 1. taula). Telebistari dagokionez, 4-12 urte bitarteko haurrak dira telebista aurrean denbora gutxien ematen dutenak: bi ordu eta 40 minutu. 13-24 urte bitarteko gazte eta heldu gazteak dira telebista gutxien ikusten duen hurrengo taldea. Espainiako batez bestekoa hiru ordu eta hiru laurdenekoa da. Ikusle kopurua audimetroekin (Nielsen-Sofres) zenbatzen da, baina lau urtetik gorakoak hartzen dira kontuan bakarrik. Halere, jakin badakigu adin horretako haurren %91,2ek telebista ikusten dutela eta bi urtetik aurrera, berriz, haurren %55ek ikusten dute telebista, haien gurasoek inkesta soziologikoetan emandako erantzunen arabera. Espainian 2005ean telebistaren batez besteko kontsumoa 221 minutukoa zen, eta interneten erabilera orduetik beherakoa (ikus 2. taula).

### 1. taula. Gazteen eta gainerako biztanleen kontsumoen alderaketa

	14 urte	16 urte	18 urte
<b>INTERNET</b>	<b>+%63</b>	<b>+%96</b>	<b>+%111</b>
<b>ZINEMA</b>	<b>+%66</b>	<b>+%55</b>	<b>+%111</b>
<b>ALDIZKARIAK</b>	<b>%38</b>	<b>+%39</b>	<b>+%32</b>
TELEBISTA	+%5	0	-%1
IRRATIA	-%34	-%15	0
PRENTSA	-%45	-%36	-%4

Iturria: Elena Izco, “Los adolescentes en la planificación de Medios” doktoretza-tesia, 2007.

## 2. taula. Telebista eta interneten eguneroko kontsumoaren bilakaera (minututan)

urtea	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Telebista	224,4	226,0	235,0	245,6	238,8	221,7
Internet	5,5	8,9	12,0	16,6	22,9	27,4

Iturria: EGM, guk osatua. Unibertsoa: 14 urte edo gehiago.

Europar Batasunean 18 urtetik beherako interneten batez besteko erabilera %50ekoa da. Muturreko erabilerak hauek dira: goiko muturrean, Eslovenia %70, Danimarka %66, Suedia eta Holanda %65 eta Erresuma Batua %64; beheko muturrean, Portugal %34, Eslovakia %31, Zipre %20 eta Grezia %16. Espainia tarteko mailan dago (%46). Frantzia, Irlanda eta Alemania pixka bat gainera daude (%48) eta Polonia eta Lituania pixka bat azpitik (%45). Erabiltzaileen kopurua handitu egiten da adinarekin, eta 16-17 urte bitarteko erabiltzaileen kopurua %82ra iristen da (ikus 3. taula).

## 3. taula. Europar Batasuneko (25 herrialde) adin txikikoen interneten erabilera

Adin-tartea	Erabilera
6 urtetik beherakoak	14%
6-11 urte	46%
12-15 urte	74%
16-17 urte	82%

Iturria: EUROBAROMETER EB60.2-CC-EB 2004.1 (2004), "Illegal and harmful content on the Internet. EU-25 Comparative Highlights". Guk osatua.

## Interneten erabileraren inguruko kezka nagusia eta gurasoen kontrola

25eko EBn, Espainia da informazio eta komunikazio teknologien kontrolik gutxien duen herria, Portugalen atzetik. Gailu elektronikoen erabilera arautzen ote den galdetuta, Espainiako familien %44tan ezetz erantzun zuten. Espainiako seme-alabek ia askatasun osoa dute ordenagailua erabiltzeko eta, horrekin batera, ordenagailuko jokoak, noski. Familien %14k bakarrik jartzen dituzte arauak. Interneten ibiltzeko kontrola handixeagoa da, baina Espainiako etxean 2/3 inguruan gurasoek ez dute seme-alaben nabigazioa kontrolatzen. Hauek dira seme-alaben interneteko erabilera gutxien kontrolatzen duten herriak: Hungaria (%23), Portugal (%20) eta Letonia (%20). Azken hamarkadan guraso asko seme-alabek internetez egiten duten erabilerarekin kezkatzen hasiak dira, haur eta gazteek sarrera erraza duten sexu-erabilerak eta solasguneak kontrolatu nahian (<http://www.internetsegura.net>). Haurrak nerabegarora iritsi ahala, murriztu egiten da gurasoek haien jardueren gainean egiten duten kontrola, nahiz eta murrizketa hori ez izan erabatekoa. Gurasoak gehiegizko kontsumoarekin daude kezkatuta, adibidez. Bideojokoen kasuan, adibidez, Europako familien %48k dute kezka hori, Mediaproren ikerketa baten arabera (Mediapro, 2006). Eduki bortitzak eta sexualak dira gurasoen beste kezka handi bat. Halere, eta aurreko adibidearekin jarraituz, paradoxikoa badirudi ere, Europako gurasoek bideojokoen edukiekin duten kezka %28koa bada ere, kezka horren bikoitza dute

gehiagizko kontsumoagatik (Mediapro, 2006). *UK children go online* txostenean (2004) azpimarratzen denez, gurasoek seme-alabek sexu esplizitua eta pornografia non ikusten dutela uste dutena ez dator bat hori benetan non ikusten duten lekuarekin. Britainiar gurasoen kezka interneten oinarritzen da ia bakarrik, eta seme-alabak berez hor ikusten dute pornografia gehien, baina bestelako hedabide “tradizionalek” ere (telebista, aldizkariak eta bideoak eta DVDak) pisu handia dute horretan oraindik.

Haur eta gazteek internetekin duten arazo larrienetako bat sarean sexua eta pornografia aurkitzeko erraztasuna izan liteke. Izan ere, aipatutako britainiar ikerketa horren arabera, Britainia Handiko haur eta gazteen erdiak baino gehiagok izan dute erlazorik interneteko pornografiarekin gutxienez astean behin. Espainiako kasuan, Fundación Aunaren 2005eko txostenaren arabera, egoera ez zen hain larria, 10-17 urte bitarteko mutilen %58,7ek ez baitziren sekula sartu pornografia, arrazismoa edo bortizkeria duten orrietan, eta nesken kasuan %86,7koa da kopuru hori. Nabarmentzekoa da, eta lasaigarria hein batean, Britainia Handiko haur eta gazteek interneteko pornografiarekin izandako erlazio gehienak ustekabean gertatu direla eta oso gutxi sartu direla pornografia-orri batean nahita edo bidali diote pornografiarik ezagunen bati (ikus 4. taula). Bilaketa horiei lotutako jakin-min sexual naturala alde batera utzita, ondorio larrikeria eragiten ez duen aldetik, beste hau da arazoa hemen: era guztietako orri sexualak aurkitzeko erraztasunak nolako eragina izango duen haur eta gazteen jokamoldean etorkizunean.

Espainiako gurasoen kontrola seme-alabek internetez egiten duten erabileran oinarritzen da gehienbat, eta haiek konbentzitzean. Halere, badaude programa bereziak haurrentzat egokiak ez diren edukiak galarazteko; bortizkeria, sexu eta hizkera zikineko edukiak mailakatzeko; ikusitako orrien historialaren jarraipena egiteko, seme-alaben adinaren arabera iragazketa egiteko, etab. (<http://www.internetsegura.net>): Cyberpatrol, Netnanny, Crayon Crawler, Optenet... Optenet hori espainiarra da eta nazioarteko hizkuntza nagusietan banatzen du bere programa. Jarraipena ezkutuan egiteko programak ere badaude (eblaster, SOS-surfonthesafeside-, etab.), seme-alabak dauden solasguneetako edukia unean bertan ikusteko, haien e-mailak irakurtzeko, ikusten dituzten orriak eta erabiltzen dituzten programak zein diren jakiteko, etab. Halakoek gazteen intimitatea urratzen dute, eta ikusteko dago adin txikikoen eskubideak uneoro errespetatzen ote diren. Zenbait nabigatzaile arruntek badute iragazte-zerbitzuak, Internet Explorer-ek adibidez, eta messenger-zerbitzu batzuek ere, Messenger-ek esaterako, “report abuse” botoia jarri dute, adin txikikoen jazarpenik sentituz gero erabiltzeko.

Solasguneen erabileratik, ezezagunekin gelditzetik eta norberaren datuak ematek datoz beste arrisku garrantzitsu batzuk. Ezezagunekin gelditzeari dagokionez, azken eurobarometroaren arabera, gutxi-gutxi batzuk baino gelditu dira inoiz (%14,5) edo behin baino gehiagotan (%8,38) sarearen bidez ezagututako ezezagunekin. Kasu gehienetan (%90), gainera, beste norbaitekin joan ziren hitzordu horietara, eta %10ean bakarrik. Espainiako kasuan ez dugu hitzordu horien inguruko xehetasunik, baina “UK children go online” txostenaren (2005) arabera, hitzorduen emaitza ona izan omen zen. Eurobarometroak dioenez, bestalde, adin txikikoen %30ek beren sakelako telefonoari buruzko informazioa ematen dute, eta %16k beren etxeari buruzkoa, eta hori nolabaiteko arriskua da haien segurtasunerako. Dena den, ikusi dugunez, ezezagunekin gelditzea oso modu desberdinerik ikusten dutela gurasoek eta seme-alabek.

#### 4. taula. Britainia Handiko haur eta gazteek interneteko pornografiarekin erlazioa izateko moduak

Ehuneko*	Erlazio mota
%57	interneten ibiltzean, sareko pornografiarekin erlaziorik izan dute, astean behin gutxienez
%38	beste zerbaitetan ari zirela pop-up pornografikoren bat ikusi dute
%36	beste zerbaiten bila zebiltzala orri pornografiko bat aurkitu dute ezustean
%25	SPAM pornografikoa jaso dute e-mailez edo <i>messenger</i> bidez
%10	pornografia-orri batean sartu dira nahita
%9	pornografia bidali diote ezagunen bati
%2	pornografia bidali diote sarean ezagututako norbaiti

Iturria: guk osatua *UK Children go on online 2004* txostenetik ateratako datuekin

\* Oharra: aukera anitzeko erantzuna; horregatik zutabeko ehunekoak batuta 100 baino gehiago ateratzen da

#### Gazteen internetekiko adikzioak, bakartze soziala eta eduki ez egokiak

Europako haur eta gazteek gehien erabiltzen dituzten zerbitzuak hauek dira, Mediapporen ikerketaren (2006) arabera: nabigazioa eta bilaketak (%91), messenger-a (%71), posta elektronikoa (%66) eta, dezente gutxiago, solasguneak (%32). Nabarmentzekoa da, internet gazteak hurkoekin komunikatzeko bitarteko nagusia bihurtzen ari bada ere, elkarrizketa serio edo pribatuetarako telefono finkoa edo sakelakoa nahiago dutela oraindik (Lenhart, Madden eta Hitlin, 2005). Era berean, gurasoek eta seme-alabek ez dituzte berdin ikusten sareak dituen arriskuak: “Gurasoek eta haur eta gazteek iritzi desberdina dute internet erabiltzeak dakartzan arriskuen inguruan. Gurasoek solaskideekin, indarkeria eta pornografiarekin eta halakoekin lotutako arriskueta jartzen dute arreta gehiena; haur eta gazteentzat, aldiz, birusak dira interneteko arrisku handienak” (Mediappro, 2006: 44. or.). Dena den, gauza objektiboa da interneteko esperientzia txarrekin goraka egin dutela: 1999an, haurren %24,7k izan zuten halako esperientziarik interneten (Valkenburg eta Soeters, 2001); 2004an erdiraino iritsia zen kopuru hori (Soeters eta V. Schaik, 2006).

Azpimarratzekoa da, bestalde, internet erabiltzen duten gazte askoko eta askok erreakzionatu egiten dutela gogaikarriak zaizkien edukiak aurkitzean. Mezu desatsegin bat jasotzean, solasgune batean gustuko ez duten zerbait aurkitzean edo orri desatseginen batean sartzean, %70ek inguruk mezua ezabatu edo gunea uzten dute. Dena den, %5-14ek bakarrik eskatzen dute aholkurik horrelako egoeraren batean egokituz gero (Eurobarometro, 2004) (ikus 5. taula). Datu hori ez dator bat Soeters eta V. Schaik-en aipatutako lanarekin, lan horren arabera, haurren %80ek beste batzuei ematen baitiete beren esperientzia txarren berri, eta horietatik %45ek lagun bati (Soeters eta V. Schaik, 2006).

#### 5. taula. Eduki desatseginen aurrean duten erreakzioa

	Ezabatu/alde egin	Erantzun/jarraitu	Aholkua eskatu

<b>Mezu desatsegina jasotzean</b>	%72	%18	%10
<b>Solasgune batean zerbaitek gogaituz gero</b>	%65	%21	%14
<b>Orri desatsegin bat ikustean</b>	%73	%22	%5

Iturria: EUROBAROMETER EB60.2-CC-EB 2004.1 (2004), "Illegal and harmful content on the Internet. EU-25 Comparative Highlights". Guk osatua.

1990eko hamarkada erdialdeaz geroztik, sarearen gehiegizko kontsumoa aipatu izan dira behin eta berriz, eta, gehiegizko erabilera hori ikusita, internetekiko adikzioaz hitz egin dute psikologo askok (Chien, 2000; Pratarelli eta Browne, 2002). Beste aditu batzuen iritziz, ordea, sarearen adikzio-ahalmena ez da hainbestekoa. Helena Matute Deustuko Unibertsitateko Psikologia katedradunak, adibidez, uste du internetek ez duela adikziorik sortzen, berez, antsietatea baizik, eta hasierako antsietate hori arindu egiten dela gehienetan, urtebete igarotakoan (Matute, 2003). Bideojokoei buruzko ikerketa ugarik ateratako ondorioaren arabera, gainera, joko berriek jokalarien arreta pizten dute hasieran, eta kontsumoa handia izaten da, pistak ezagutu eta pantaila batetik bestera igarotzen ikasten ari diren bitartean, baina jokoak menperatzen denean, asko murrizten da kontsumoa... joko berri bat iristen den arte.

2004an, Kaliforniako Unibertsitateak *World Internet Project* izeneko ikerketa egin zuen 14 herrialdetan<sup>1</sup>, interneten erabilera aztertzeko, eta ikerketa haren arabera, internet-erabiltzaileek telebista gutxiago ikusten dute konexiorik ez dutenek baino. Txilen eta Hungarian murriztu da telebista-kontsumoa gehien, asteko bost ordu eta 42 minutu, batez beste. Bestalde, interneten inguruko beste mito bat zapuztuz, ikerketak erakutsi du, aztertutako herrialde guztietan behintzat, internautek denbora gehiago ematen dutela jarduera sozialetan, interneten ibiltzen ez direnak baino. Era berean, interneteko erabiltzaile gazteek diotenez, sareak lagunetik harremanak hobetzen laguntzen die (Lenhart eta Rainie, 2001). Ideia hori azpimarratzen du *Teenage Life Online* txostenak ere. Izan ere, ikerketa horren arabera, messenger-ean lagun gehien dituzten haur eta gazteek maizago eta denbora gehiago konektatzen dira internetera, zerrendan lagun gutxiago dutenak baino. Bideojokoen kasuan, berriz, beste ikerketa batean ikusi denez, halako jokoak erabiltzen dituzten haurrak irekiak izaten dira eta lagun asko izaten dituzte.

Interneteko edukiei dagokienez, ondo bereizi behar dira eduki kaltegarriak eta delituzko edukiak. Berez, adin txikikoentzat egokiak ez diren orri batzuk badaude (orri erotikoa eta pornografikoak, tartean), Europako herri askotan legezkoak direnak zeharo. Satelite eta kable bidezko operadoreetan, bideoklubetan eta web-orrietan film pornografikoak eskaintzen dira. Material kaltegarri hori adin txikikoen begietara ez iristeko sistema bat ezartzea da kontua, hemen. Beste kontu bat dira delituzko edukiak: haur-pornografia (internet bidez egiten diren delituen erdia), adin txikikoak erakarri eta trafikatzeko, propaganda arrazista eta xenofobia, indarkeriaren eta terrorismoaren apologia, datu pertsonalak modu bidegabean eskuratzea... Kasu horietan ezer gutxi egin daiteke, agintarietan (Ertzaintza, Guardia Zibila...) salaketa jartzea edo salaketa-lineetara (<http://www.protegeles.es>) jotzeaz kanpo. Bestalde, azken hilabeteetan anorexiaren (*pro-*

<sup>1</sup> Alemania, Britainia Handia, Espainia, Estatu Batuak, Hungaria, Italia, Japonia, Korea, Macau, Singapur, Suedia, Taiwan, Txile eta Txina.



ana) eta bulimiaren (*pro-mia*)apologia egiten duten web-orriak ugaritu dira. Orri horietan dietak eta pisua galtzeko trukuak ematen dira, jateko ohiturak modu larrian kaltetuz eta arazo larriak eraginez, neska gaztetxoek artean bereziki. Web horiek orokorrak dira, eta ezin dira delituzkotzat jo, nahiz eta orri horietako zenbait atal halako arazoak dituzten gaixoentzat oso kaltegarriak izan.

### **Safer Internet Plus Programme**

Europar Batasunak interneteko segurtasuna areagotzeko politika jarri zuen abian 1999an, *Safer Internet Action Plan* (1999-2002) izeneko programaren bidez. Programa hura 2006-2008ra luzatzea erabaki zuten eta 45 milioi euro bideratu zituzten horretara, izen berria emanez: *Safer Internet Plus Programme*. Hauek dira programa horren helburuak: internet eta sareko teknologia berriak erabiltzeko segurtasuna areagotzea, gazteen kasuan bereziki; eta legez kanpoko edukien, eduki kaltegarrien eta nahi ez ditugun edukien (SPAM) aurka borroka egitea, amaierako erabiltzaileei begira. Legez kanpoko edukiei dagokienez, herri bakoitzeko legediaren arabera da hori, nahiz eta Batasunaren barruan nolabaiteko homogeneousotasuna egon. Eduki kaltegarriaren kasuan, desberdintasun kulturalak sartzen dira tartean, nahiz eta alderik handiena herrialde islamiarrekin egon, pornografia debekatuta baitago han. Segurtasun-politikak, ordea, ez du edukia zaintzen bakarrik, harremanak eta jokabideak ere, jazarpena galarazteko, esate baterako.

*Safer Internet Plus Programme* horretan hainbat ekintza proposatzen dira. Lehenik eta behin, salaketak jartzeko 21 linea jarri dira (Espainian, <http://www.protegeles.es>) legez kanpoko edukien aurka borrokatzeko. 1999an sortutako International Association of Internet Hotlines (INHOPE, <http://www.inhope.org>) erakundea arduratuko da programa koordinatzeaz. Txostenak idazten eta eskatzen ditu legez kanpoko edukien inguruan (haur-pornografia, arrazismoa, etab.), txostenak aztertu eta eskumeneko agintariei (polizia, salaketa-lineak, etab.) bidaltzen dizkie. Beste jardueraz-ildoa bat kontzientziatze-lana da. 23 web-orri eta kontzientziatze-nodoren bidez egiten dute lan hori, eta INSAFEk koordinatzen du hori guztia (<http://www.saferinternet.org/ww/en/pub/insafe/index.htm>). Gurasoei, irakasleei eta gazteei zuzendutako kontzientziatze-kanpainak antolatzen dituzte (ekitaldietan, hedabideetan, etab.) eta web-orriak diseinatzen dituzte horretarako. Orri horietako batzuek laguntza-lineak ere izango dituzte aurki. Teknologia berrien erabileraren inguruko ikerketa bultzatzen da, halaber. Hortxe kokatuta dago *Mediapro* programa, adibidez, eta oraingoa —Sonia Livingstone irakasleak zuzendutako *EUKidsOnline* (<http://www.eukidsonline.com>)— ere bai. Sinatzailea eta Maialen Garmendia dabilta Espainiako taldean. Ikerketa-egitasmo horretan 18 herrialde dabilta, eta haurrek eta adin txikikoek internet eta beste teknologia batzuk erabiltzeko moduz dugun ezagutza-maila hartzen dute gogoeta-gaitzat. Sareko segurtasuna arriskuan jartzen duten faktoreak identifikatzea da gure helburua, horren inguruko politikak erabakitzen dituztenei gomendioak egite aldera. Horrekin batera, eskuragarri dauden datuak aurkitu, ikerketetan dauden hutsuneak antzeman eta herri desberdinetan egindako ikerketen aldean dauden desberdintasunen arrazoiak zein izan ote daitezkeen argitu nahi dugu. Etorkizuneko ikerketetan interesik dutenentzat, “jardunbide egokien gida” bat prestatu dugu, haurrek sareaz egiten duten erabilera ikertzeko gomendio metodologiko batzuekin. Bestalde, Europar Batasunaren ikerketei dagokienez, eurobarometroa dugu tresna nagusia, bere

ikerketetan teknologia berrien erabilera ere aztertzen baitu. 2006ko maiatzean aurkeztu zuten azken azterketa.

*Safer Internet Plus Programme*-k haurrentzat nahi ez ditugun eta kaltegarriak diren edukien tratamenduaren inguruko zenbait ekintza jasotzen dira. SIP-BENCH egitasmoan, gaur egun dauden iragazte-programak eta antzeko zerbitzuak aztertzen eta alderatzen dira, eta behin gurasoen kontrolerako eta spam-aren aurkako 30 iragazte-programa aztertzen dira hiru urtetik behin. Eurobarometroaren arabera, Europako gurasoen %48k interneteko segurtasunari buruz hobeto informatuta egoteko beharra daukate eta, horri jarraiki, egitasmo honetan emaitzak eta gomendioak eman nahi zaizkie guraso eta hezitzaileei iragazki egokiak aukeratzen eta bilatzen laguntzeko, halakoen muga eta ahalmenen berri emanaz. Ingurune seguruagoak sustatzeari dagokionez, lau ekintza nagusi daude. “Quality Assurance and Content Description” (QUATRO) programaren barruan Europa osoko 9 antolakunde ari dira lanean, edukiak berrikusten; erabiltzaileei, unibertsitateei, teknologia-erakundeei eta argitaletxeei laguntzeko taldeak antolatzen. Web-orrien kalitate-etiketak egiaztatzea eta kalitate-bermeak ziurtatzea da programa horren zeregin nagusia. SPOTSPAM egitasmoak nazioarteko spammer-en aurka legezko neurriak hartzen laguntzen du, eta horretarako spambox batzuk ditu SPOTSPAMen datu-basean nahi diren kexak eta eskariak egiteko, agintariak spammer-en aurkako legezko neurriak hartu ahal izan dezaten. PEGI online egitasmoa autoarauketa-egitasmo bat da, eta PEGI (Pan European Game Information – Europako herrialdeetako jokoei buruzko informazioa) izeneko jokabide-kodea eta etiketak zabaltzean oinarritzen da. Adinen arabera sailkapena finkatzen duen Europa osoko lehen sistema da, eta alderdi hauek sailkatzen ditu adinaren arabera: bortizkeria, hizkera zikina, beldurra, sexua, drogak, diskriminazioa eta ausazko jokoak. Konfiantza handiagoa emango die gurasoei eta internet bidezko kontsumitzaile eta erosleei dagokion jokoak adin-tarte jakin baterako egokia dela edo halako eta halako eduki duela jakiteak. Safer Internet-ek esperientziak, ekimenak, lanak eta topaketak trukatzeko forum bat antolatzeko asmoa du, besteak beste.

## **Ondorio batzuk**

Gaur egungo haur eta gazteek ederki txertatu dituzten ordenagailuak eta internet beren bizitzan, eta horri esker aisialdia (jokoak, musika eta filmak, ...) eta komunikazioa (messenger-a eta posta elektronikoa) eskuratzeko aukera dute, bai eta informazioa eta ezagutzak eskuratzeko ere. Nolanahi ere, internet erabiltzeko arrazoiak aldatu egiten dira adinaren arabera. 8-12 urte bitarteko haurrentzat, hauek dira interneten ibiltzeko arrazoi nagusiak, garrantziaren arabera sailkatuta: jokoak, ICQ —American Online-en messenger-a— eta bestelako messenger-ak, solasguneak, musika jaitea, eskolarako informazioa eta zaletasunak (Soeters eta Van Schaik, 2006). 14-18 urte bitartekoentzat, berriz, sozializazioa eta lagunekin harremanetan egotea dira arrazoi nagusiak, Yahoo-k egindako azken ikerketaren arabera (LiderDigital.com, 2006-11-07).

Ondo pasatzea eta aisialdia garrantzizko faktoreak dira ordenagailuak eta internet erabiltzeko garaian, eta horiexek dira arrazoi nagusiak gaztetxoenen artean. Halere, zaharragoentzat garrantzi handiagoa du komunikazioak, messenger-a eta posta elektronikoa gainerako alderdiak baino askoz gehiago baloratzeak erakusten digunez. Zaharragoek eskolako lanetarako erabili dezakete ordenagailua eta internet, baina gehienbat jolasteko

edo entretenitzeko erabiltzen dituzte aparatu teknologiko horiek. Informatika-ekipoei eta interneti lotutako jostetako alderdi horren ondorioz, gazteek komunikatzeko bitarteko desberdin bezala ikusten dituzte aparatu horiek, hainbat zentzutan. Lehenik eta behin, lagunekin, anai-arrebekin, guraso edo senideekin erabiltzeak haiekin erlazionatzera behartzen ditu, haien ustez, ordenagailua erabiltzean edo ordenagailuan jolastean nola jokatu behar duten ikasiz eta besteekin elkarrekintzan jardunez, hots, heldu bezala jokatzeko elkarrekintza sozialerako eginkizunak barneratzen ikasiz. Bigarrenik, teknologia horiek eta dagokien software-ak gizarte-kohesioan laguntzen dute, loturak eratzen dituzte gazteen artean eta taldekideak izateko sentipena sortzen die. Aparatu horiek eta jolasteko dituzten funtzioak hizketagai dira gazteen artean, euskarriari berari buruz (halako txartel grafiko edo programa) edo jokoei beraiei buruz hitz egiten baitute. Aztergai hartutako adinetako gazteak askotan ikusten ditugu halako programa edo jokori buruz su eta gar hizketan, baten onurak eta bestearen oztopoak aipatzen, internetetik jaitziko eta oparitu dizkieten jokoez berrikerian, edo joko berriak dituzten orriei buruz hitz egiten. Hirugarrenik, haur eta gazte askok diru askorik ez dutenez, programak eta filmak, musika eta jokoak dituzten CDak elkarrekin trukatu behar izaten dituzte. Halakoak pirateatu (zaharrenek) edo saretik jaisten dituzte, normalean.

Gazteentzat, internet besteekin —gurasoekin (denek batera erabiliz edo, batzuetan, beraiek eskatutakoa erosten zaienean...— nahiz lagun-taldeko kideekin (messenger-a eta posta elektronikoa, sakelako telefonoekin batera) komunikatzeko tresna da, oro har. Ez dirudi interneten erabilerak (gehiegizkoak ziurrenik) inolako arazorik sortzen duenik gazteen eta gurasoen (familiaren), lagunen eta irakasleen arteko harremanean. Ez dago daturik aparatuok harreman horietan eragina izan eta kaltetu egiten dituztela pentsatzeko.

Gazteak balio estrategiko handia dute etorkizuneko eduki eta zerbitzu multimedien ekoizleentzat. Gaur egun edukiak eskuratzeko eta gainerako kideekin komunikatzeko darabilten moduak markatzen du etorkizuneko internet-zerbitzuak, telebista digitala edo bitarteko nagusia nolakoak izango diren. Eduki multimediak lantzen dituzten enpresa handiek badakite gazteek bitarteko azkarrak eta sarbide arinekoak nahi dituztela, eta halakoen kontsumoak ez duela zentzurik lagunekin partekatzerik ez badute (ikus Griffiths, 2003:24).

Interneteko arriskuei eta gurasoen kontrolari dagokienez, seme-alabek sarean egiten dutenaren gaineko jarraipenak eta hezkuntzak duten garrantzi handia azpimarratu beharra dago, berriro ere. Konbentzitzean oinarritutako politikak bultzatu behar dira, debekuan eta iragazte-programetan oinarritutakoak beharrez, halakoak guztiz baztertu gabe, eta benetako arriskurik egonez gero ezkutuko jarraipen-sistemak ere erabiliz. Interneten ibiltzeko muga eta arau argiak finkatu behar dira: ibiltzeko denbora eta ordutegia, zer den onargarria eta zer ez, zein informazio eman daitekeen eta zein ez, aurkitzen diren legez kanpoko web-orriak salatzea... Administrazioaren politikari dagokionez, orrien etiketak jartzeko politikak, edukiak sailkatzekoak eta iragazte-programak lehenetsi behar dira Europa mailan. Horrekin batera, Europako Parlamentuaren gomendio bati jarraiki “.kid” domeinu berria jarri behar da martxan: adin txikikoentzako edukiak jasoko ditu gune horrek, aginpide independente baten arauetara jarraiki. Edukiak haur eta gazteen adinera egokitzea gurasoen, hezitzaileen, eduki-hornitzaileen, legegileen eta administrazioaren zeregin bateratua da.

Azkenik, mezu positibo bat eman nahi dugu bukatzeko: “Kezkak bidezkoak izan arren, ezin dizkiogu SAREArri gure gizartearen bizio edo akats guztiak leporatu, eta ezin dugu adin txikikoek sarea erabiltzearen aurkako jarrera eduki edo erabilpen hori debekatu. Interneten erabilera arduratsua bultzatzea da egin behar duguna” (AUNA, 2005).

## Bibliografia-erreferentziak

- Asociación para la Investigación en Medios de Comunicación, AIMC/EGM (2006): Audiencia infantil/ Juvenil de Medios en España, AIMC, Madril, (<http://www.aimc.es>).
- Atwal, Kam; Millwood-Hargrave, Andrea eta Sancho, Jane (2003): “What children watch”, Broadcasting Standards Commission and Independent Television Commission.
- AUNA, (2005): “Los menores en la RED, comportamiento y navegación segura”, Madril. Cuadernos/Sociedad de la Información, 6. zk.
- CEACCU (2005): “Sondeo sobre hábitos de consumo de televisión y de nuevas tecnologías de la infancia y juventud” (<http://ceaccu.org/docspdf/sondeohabitosconsumotfnuewtecnologias.pdf>).
- EUROBAROMETER EB60.2-CC-EB 2004.1 (2004), “Illegal and harmful content on the Internet. EU-25 Comparative Highlights”.
- García Calera, M.C., (2000) “Televisión, violencia e infancia. El impacto de los medios”, Ed. Gedisa, Bartzelona.
- Carmelo Garitaonandia, Oleaga J.A. eta Fernández Peña, Emilio (2005), “Las tecnologías de la información y la comunicación y su uso por los niños y los adolescentes”, “DOXA Comunicación” aldizkarian, 3. libk., 3. zk., 45-65. or., 2005.
- Garitaonandia, Carmelo, Juaristi, Patxi eta Oleaga, J.A. (1999), “Qué ven y cómo juegan los niños y los jóvenes españoles”, ZER aldizkaria, 6. zk., 67-97. or. (<http://www.ehu.es/zer>).
- Garitaonandia, Carmelo, Juaristi, Patxi eta Oleaga, J.A., (1998) “Las relaciones de los niños y los jóvenes con las viejas y las nuevas tecnologías de la Información”, ZER aldizkaria, 4. zk., 131-161. or. (<http://www.ehu.es/zer>).
- Gordo, Angel J. eta Magías I.(2006): “Jóvenes y cultura messenger”, Fundación Ayuda contra la Drogadicción-INJUVE (<http://www.injuve.mtas.es/injuve/contenidos.itme.action?id=90016137&menuId=572069434>).
- Lenhart, Amanda; Rainie, Lee; Lewis, Olivier (2001): “Teenage life online. The rise of the instant-message generation and the Internet’s impact on friendships and family relationships”, Ed. Pew Internet and American Project. Washington. (<http://www.pewinternet.org>).
- Lenhart, Amanda; Madden, Mary; Hitlin, Paul (2005): “Teens and Technology. Youth are leading the transition to a fully wired and mobile nation”, Ed. Pew Internet and American Project. Washington. (<http://www.pewinternet.org>).
- Lenhart, Amanda (2005): “Protecting Teens Online”, Ed. Pew Internet and American Project. Washington. (<http://www.pewinternet.org>).
- Livingstone, S. eta Bober, M. (2006) Regulating the internet at home: Contrasting the perspectives of children and parents. In D. Buckingham eta R. Willet (arg.) *Digital Generations* (93-113. or.).
- Livingstone, Sonia eta Bober, Magdalena, (2005) “UK children go online”, Economic and Social Research Council, Londres, uztaila (<http://www.children-go-online.net>).

- Livingstone, Sonia eta Bovill, Moira Editors, (2001) “Children and their Changing Media Environment. A European Comparative Study”, Lawrence Erlbaum Associates (arg.), Mahwah (New Jersey) eta Londres.
- Lorente, Santiago; Bernete, Francisco eta Becerril, Diego (2004): “Jóvenes, relaciones familiares y tecnologías de la información y de la comunicación”. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Injuve.
- Matute, Helena, (2003) “Adaptarse a Internet. Mitos y realidades sobre los aspectos psicológicos de la red”, Ed. La Voz de Galicia, Coruña.
- MEDIAPPRO, (2005): “A European Research Project: The Appropriation of New Media by Youth”. Europar Batzordea. Information Society. Safer Internet Action Plan.
- Parents Television Council (2006): “Wolves in sheep’s clothing. A content analysis of children’s television”. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.parentstv.org>.
- Pratarelli, M eta Browne, B (2002): “Confirmatory Factor Analysis of Internet Use and Addiction”. *CyberPsychology and Behavior*. 5. libk., 1. zk. 53-64. or.
- PROTEGELES (2002): “Seguridad infantil y costumbres de los menores en Internet” <http://www.protegeles.com/internet.doc>
- PROTEGELES (2002): “Cibercentros y seguridad infantil en Internet” <http://www.protegeles.com/cibercentro.asp>
- REDES (2006) “Perfil sociodemográfico de los internautas. Actividades realizadas en Internet” <http://www.red.es>
- Rideout, Victoria; Vandewater, Elisabeth A. eta Wartella, Ellen A. (2003), *Zero to six. Electronic media in the lives of infants, toddlers and preschoolers*. Menlo Park (Kalifornia), The Henry J. Kaiser Family Foundation.
- Roberts, Donald F. eta Foehr, Ulla G., (2004) “Kids and Media in America”, Cambridge University Press.
- Roberts, Donald F.; Foehr, Ulla G., eta Rideout, Victoria (2005) “Generation M: Media in the lives of 8-18 year-olds”, The Henry J. Kaiser Family Foundation .
- Valor, Josep eta Sieber, Sandra (2003), “Uso y actitud de los jóvenes ante Internet y la Telefonía móvil”. Hemen eskuratu daiteke: [http://www.iese.edu/es/files/5\\_9073.pdf](http://www.iese.edu/es/files/5_9073.pdf) edo <http://www.ebcenter.org>.